Este documento es de carácter informativo y no tiene valor jurídico.
Dokumentu hau informazioa emateko da, eta ez du balio juridikorik.

NORMATIVA REGULADORA DE LAS CÁTEDRAS INSTITUCIONALES Y DE EMPRESA DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN ERAKUNDE ETA ENPRESEKIN ELKARLANEAN SORTUTAKO KATEDREN ARAUDIA

● Aprobada por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 27 de mayo de 2014.
● Modificada por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 30 de marzo de 2021.
(ACG 30/03/2021)

Gobernu Kontseiluak onetsia 2014ko maiatzaren 27ko erabaki baten bidez
Gobernu Kontseiluak aldatu zuen, 2021eko martxoaren 30eko erabaki baten bidez)
(GKE 2021/03/30)

TEXTO CONSOLIDADO
(última actualización 30/03/2021)

TESTU BATERATUA
(azken eguneratzea: 2021/03/30)

NORMATIVA REGULADORA DE LAS CÁTEDRA INSTITUCIONALES Y DE EMPRESA DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Exposición de Motivos

Uno de los objetivos de la Universidad Pública de Navarra, recogido en el artículo segundo de sus estatutos, y que constituye el denominado tercer pilar universitario, es el de transferir el conocimiento generado al servicio de la cultura, la calidad de vida y el desarrollo social y económico. Todo ello debe hacerse sin abandonar, sino más bien al contrario, la actividad básica de investigación y generación de conocimiento no necesariamente orientado a ningún fin.

Son varios los instrumentos que permiten el objetivo reseñado más arriba, y que van desde la divulgación y difusión científica, hasta la creación de empresas, denominadas genéricamente spin-off, que surgen y tienen como centro de su negocio los resultados de investigación generados en la actividad investigadora.

La Universidad Pública de Navarra, consciente de la importancia de esta tercera misión, viene llevando a cabo acciones y diseñando instrumentos que contribuyan a este fin último. Como consecuencia de ello, la UPNa figura siempre en los rankings universitarios como una de las mejor posicionadas en todos los indicadores que tienen que ver con la transferencia tecnológica y de conocimiento.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN ERAKUNDE ETA ENPRESEKIN ELKARLANEAN SORTUTAKO KATEDREN ARAUDIA

Zioen azalpena

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren helburuetako bat sortutako jakintza transferitzea da kulturaren, bizi-kalitatearen, eta garapen sozialaren nahiz ekonomikoaren mesedetan. Hala dago jasoa estatutuen bigarren artikuluan, hori baita, hain zuzen, Unibertsitatearen hirugarren zutabe deitutakoa. Horretarako, ez da alde batera utzi behar —alderantziz baizik— ikerketa eta jakintza sortzeko oinarrizko jarduera, eta ez du zertan helburu jakin batera bideratua egon.

Helburu hori lortzeko, modu bat baino gehiago dago: dibulgazio eta zabalpen zientifikotik hasi eta enpresak sortzeraino; hain zuzen, ikerketaren emaitzak sorburu eta negozio ardatz dituzten enpresei *spin-off* deitzen zaie oro har.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak badaki zeinen garrantzitsua den hirugarren xede hori, eta hura erdiesteko lagungarriak diren ekintzak egiten eta tresnak diseinatzen ari da aspalditik. Horri esker, unibertsitateen sailkapen rankingetan NUP hobekien kokatuetako bat izaten da beti teknologia- eta jakintza-transferentziarekin zerikusia duten adierazle guztietan.

Uno de los instrumentos que la Universidad está utilizando, y con mayor intensidad en los últimos años, son las denominadas Cátedras. Las Cátedras pueden entenderse como uno de los instrumentos previstos el artículo 5.2 de los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra. Si bien las últimas Cátedras acordadas obedecen a un diseño y estrategia predeterminados, la Universidad no dispone de una regulación específica que guíe el modelo de Cátedras que se desea fomentar.

Es por ello que con esta normativa se intenta regular y definir ese modelo de Cátedra pretendido.

Artículo 1. Naturaleza.

Las Cátedras institucionales y de empresa se configuran como instrumentos de colaboración de la Universidad Pública de Navarra con empresas e instituciones, tanto públicas como privadas, con el objetivo de contribuir a la cultura, a la calidad de vida, al desarrollo social y económico, especial aunque no exclusivamente, en el entorno regional más próximo. Las características singulares que deben cumplir las Cátedras, y que distinguen a este instrumento de otros con el mismo fin son:

- Compromiso de relación estable a medio-largo plazo.
- Financiación mínima anual garantizada.
- Seguimiento de actividades y programación anual a través de una comisión mixta paritaria.
- Acceso para empresas e instituciones más directo a la oferta investigadora de la universidad.
- Dirección académica por un profesor permanente designado por el Rector.
- Posibilidad de integración de actividades investigadoras, docentes, de transferencia, innovación y de divulgación en un mismo marco.
- Visibilización pública del financiador como socio estratégico de la Universidad.

Artículo 2. Objeto.

Las Cátedras institucionales y de empresa podrán desarrollar actividades en los campos de la investigación, la creación cultural y artística, la formación, el desarrollo, la innovación y la difusión y divulgación del conocimiento. Entre esas actividades cabe mencionar, con carácter no excluyente, las siguientes:

Transferentziarako tresnetako bat —eta Unibertsitatea azken urteotan gehien erabiltzen ari dena— katedrak dira. Izan ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuen 5.2 artikuluan ezarritako baliabideetako bat dira. Azkenaldian eratutako katedrek aurrez zehaztutako diseinu eta estrategia bat duten arren, Unibertsitateak ez du araudi espezifikorik nolako katedra-eredua sustatu nahi den gidatuko duenik.

Horregatik, araudi honen bidez, lortu nahi den katedra-eredua arautu eta definitu nahi dugu.

1. artikulua. Izaera.

Erakunde- eta enpresa-katedrak Nafarroako Unibertsitate Publikoak enpresa eta erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko tresnak dira, ingurune hurbilenean kultura, bizi-kalitatea eta garapen soziala nahiz ekonomikoa bultzatzearren bereziki, baina ez soilik. Honako hauek dira katedrek bete beharreko ezaugarri bereziak, zeinak bereizten baitituzte helburu bereko beste tresna batzuetatik:

- Epe ertainera eta luzera harreman egonkorra izateko konpromisoa.
- Urteko gutxieneko finantzaketa bermatua.
- Batzorde misto parekide batek jardueren jarraipena eta urteko programazioa egitea.
- Enpresek eta erakundeek sarbide zuzenagoa izatea Unibertsitatearen ikerketa-eskaintzara.
- Zuzendari akademikoa errektoreak izendatutako irakasle iraunkor bat izatea.
- Aukera ematea esparru beraren barrenean ikerketa, irakaskuntza, transferentzia, berrikuntza eta dibulgazioa integratzeko.
- Finantzatzailea Unibertsitateko bazkide estrategiko gisa bistaratzea publikoki.

2. artikulua. Xedea.

Erakunde eta enpresen katedretan, jarduerak eginen dira arlo hauetan: ikerketa, sorkuntza kulturala eta artistikoa, prestakuntza, garapena, berrikuntza, eta jakintzaren zabalkuntza eta dibulgazioa. Honako hauek dira aipagarriak, nahiz ez bakarrak:

- Desarrollo de líneas o proyectos de investigación, desarrollo e innovación (i+D+i) de interés común.
- Consecución y captación de proyectos de investigación en los ámbitos nacionales e internacionales.
- Asesoramiento en creación cultural y artística, investigación, desarrollo e innovación, así como información preferente sobre proyectos de investigación o transferencia.
- Apoyo a la elaboración de tesis doctorales, proyectos de fin de carrera, trabajos fin de grado y de master.
- Realización de prácticas de estudiantes, de tipo curricular u otras.
- Fomento de la integración de miembros de la comunidad universitaria en el entorno de la empresa
- Organización de actividades de formación, incluida la formación continua.
- Organización de seminarios, conferencias, jornadas y cursos.
- Dotación de premios.
- Organización de actividades culturales y de difusión cultural, científica, social o humanística.
- Cualquier otra actividad de interés para ambas partes que se acuerde en la Comisión Mixta de Seguimiento.

- Interes orokorreko ikerketako, garapeneko eta berrikuntzako lerroak eta proiektuak garatzea (I+D-b).
- Ikerketa-proiektuak lortzea eta erakartzea Espainian eta nazioartean.
- Aholku ematea ikerketaren, sorkuntza kulturalaren eta artistikoaren, garapenaren eta berrikuntzaren inguruan, bai eta lehentasunezko informazioa ere ikerketako edo transferentziako proiektuei buruz.
- Doktoretza-tesiak, karrera amaierako proiektuak, eta gradu eta master amaierako lanak egiten laguntzea.
- Ikasleen praktikak egitea, curriculumekoak edo bestelakoak.
- Unibertsitateko komunitateko kideak enpresen ingurunean integra daitezen sustatzea.
- Prestakuntza-jarduerak antolatzea, prestakuntza jarraitua barne.
- Mintegiak, hitzaldiak, jardunaldiak eta ikastaroak antolatzea.
- Sariak ematea.
- Jarduera kulturalak eta kultura, zientzia, eta giza eta gizarte zientziak zabaltzekoak antolatzea.
- Bi aldeentzat interesa duten bestelako jarduerak, Jarraipen Batzorde Mistoan adosten direnak.

Artículo 3. Régimen económico.

1. La participación en las actividades de las Cátedras institucionales y de empresa no supondrá en ningún caso el establecimiento de relación laboral con la Universidad Pública de Navarra.
2. La dotación mínima para la creación y mantenimiento de una Cátedra institucional o de empresa será de 20.000 euros por cada año de duración de la misma. La Universidad Pública de Navarra aplicará el 13% de las cantidades abonadas cada año para la financiación de las Cátedras destinadas a la compensación por la gestión y uso de servicios generales. Estas cantidades tendrán la consideración de costes indirectos a los efectos de lo dispuesto en el artículo 28.9 de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.
3. Las fuentes de financiación de las Cátedras institucionales y de empresa de la Universidad Pública de Navarra serán las que se señalen en el convenio de creación, así como de otras que puedan

3. artikulua. Araubide ekonomikoa.

1. Erakunde eta enpresen katedren jardueretan parte hartzeak ez du inola ere ekarriko Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lan-harremanik finkatzea.
2. Erakunde- edo enpresa-katedra bat sortzeko eta mantentzeko gutxieneko zuzkidura 20.000 eurokoa izanen da katedrak dirauen urte bakoitzeko. Katedrak finantzatzeko urtero ordaindutakoaren % 13 zerbitzu orokorren kudeaketa eta erabilera konpentsatzera bideratuko du Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Zenbateko horiek zeharkako kostutzat hartuko dira, Diru-laguntzei buruzko 2005eko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 28.9 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoko erakunde eta enpresen katedren finantzaketa-iturriak eratze-hitzarmenean adierazitakoak izanen dira, bai eta haien jardueretatik lortzen ahal direnak ere. Erakunde eta

obtenerse de sus actividades En ningún caso la dotación económica de las Cátedras institucionales y de empresa se hará con cargo al presupuesto de la Universidad.

4. Caso de que sea necesario el uso permanente de locales por parte de la Cátedra, ello habrá de reflejarse en el convenio, así como asignarse en el presupuesto anual de la Cátedra los precios públicos correspondientes. En todo caso, podrán contemplarse tarifas específicas para las Cátedras, e incluso su exención, en las bases de ejecución presupuestaria de la Universidad.

enpresen katedren zuzkidura ekonomikoa ez da inola ere Unibertsitatearen aurrekontuaren kargura eginen.

4. Katedrak lokalen bat etengabe erabili behar badu, hitzarmenean jaso beharko da hori, eta horri dagozkion prezio publikoak esleitu beharko zaizkio katedraren urteko aurrekontuan. Nolanahi ere, zilegi da tarifa espezifikoak finkatzea katedretarako, baita tarifak ordaintzetik salbuestea ere, Unibertsitatearen aurrekontua betearazteko oinarrietan.

Artículo 4. Modo de creación.

1. La iniciativa de creación de una Cátedra podrá surgir de cualquier órgano de gobierno, de los vicerrectores, del gerente y del rector.
2. Las Cátedras institucionales y de empresa se crearán mediante la firma del correspondiente convenio de colaboración entre el Universidad Pública de Navarra y las instituciones o empresas que las financien.
3. El citado convenio deberá tener una duración mínima de dos años, siendo prorrogable de forma tácita por periodos anuales sucesivos, siempre que alguna de las partes no manifieste su voluntad en sentido contrario en un plazo no inferior a tres meses antes de la terminación del plazo de vigencia.

4. artikulua. Katedrak eratzeko modua.

1. Katedra bat sortzeko ekimena gobernu-organoek, errektoreordeek, gerenteak eta errektoreak izaten ahal dute.
2. Erakunde- eta enpresa-katedrak eratzeko, lankidetza-hitzarmen bat sinatu behar dute Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta katedrak finantzatuko dituzten erakunde edo enpresek.
3. Hitzarmen horrek gutxienez bi urteko iraupena izanen du, eta urtebetez luzatu ahal izanen da isilbidez hurrengo urteetan, baldin eta aldeetako batek kontrako nahia adierazten ez badu hitzarmenaren indarraldia bukatu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Artículo 5. Contenido mínimo del convenio.

El convenio por el que se creen las Cátedras institucionales y de empresa deberá señalar y definir, al menos, los aspectos siguientes:

a) La denominación de la Cátedra.
b) Las actividades que se van a desarrollar en el marco de la Cátedra.
c) La duración del convenio por el que se crea la Cátedra y los mecanismos de renovación posterior y de denuncia.
d) La dotación económica con la que la Cátedra va a desempeñar sus funciones.
e) El tamaño de la Comisión Mixta Universidad Pública de Navarra – Empresa o institución financiadora y su régimen básico de funcionamiento.
f) El vicerrectorado competente, del que dependerá funcionalmente la Cátedra.

5. artikulua. Hitzarmenaren gutxieneko edukia.

Erakunde- eta enpresa-katedrak eratzeko hitzarmenak alderdi hauek adierazi eta definitu behar ditu gutxienez:

a) Katedraren izena.
b) Katedraren esparruan zer jarduera eginen diren.
c) Katedra eratzeko hitzarmenak zenbat iraunen duen, eta zer mekanismo dauden hitzarmena geroago berritzeko edo bertan behera uzteko.
d) Zenbateko diru-zuzkidurarekin beteko dituen katedrak bere eginkizunak.
e) Zenbat kide izanen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta enpresa edo erakunde finantzatzailearen arteko Batzorde Mistoak, eta nolakoa izanen den haren oinarrizko funtzionamendu-araubidea.

g) La enumeración de los equipamientos destinados a la actividad de la Cátedra por cada una de las partes.
h) La declaración de la Cátedra como unidad organizativa, sometida al derecho público.
i) El compromiso de las partes de divulgar la existencia y actividades de la Cátedra.

Artículo 6. Órganos de Dirección.

1. La dirección de las actividades de las Cátedras institucionales y de empresa será responsabilidad de una Comisión Mixta de Seguimiento y de un Director o Directora de la Cátedra.
2. La Comisión Mixta será paritaria con la mitad de miembros pertenecientes a la Universidad Pública de Navarra y la otra mitad a las empresas o instituciones con las que se convenie la Cátedra. La composición será, con carácter general, de un total de cuatro personas, pudiendo incrementarse ese número si las circunstancias lo aconsejan.
3. Los representantes por parte de la Universidad Pública de Navarra serán designados por el Rector, de entre su profesorado con vinculación permanente o profesor contratado doctor interino. En la resolución de nombramiento se determinará la duración del mandato. No podrán ser designadas personas que tengan algún tipo de vinculación con la empresa o institución. (ACG 30/03/2021)
4. El Director de la Cátedra institucional o de empresa será nombrado por el Rector o la Rectora, a propuesta de la Comisión Mixta de Seguimiento. La condición de Director o Directora de una Cátedra institucional o de empresa deberá recaer en un miembro del personal docente e investigador con vinculación permanente o profesor contratado doctor interino, y cuya actividad docente o investigadora guarde relación con el ámbito de actividad de la Cátedra. (ACG 30/03/2021)

Artículo 7. Funcionamiento de la Comisión Mixta. Numeración corregida (30/03/2021)

1. La Comisión Mixta de Seguimiento, en su primera reunión, elegirá de entre sus miembros a la persona que la presida, así como a su secretario, que será la persona encargada de levantar acta de sus

f) Funtzionalki zein errektoreordetzaren mende egonen den katedra.
g) Katedraren jarduerak gauzatzeko, zer ekipamendu jarriko duen alde bakoitzak.
h) Katedra zuzenbide publikoaren mende dagoena antolaketa-unitate deklaratzea.
i) Aldeen konpromisoa katedra hori badela eta zer jarduera egiten diren ezagutzera emateko.

6. artikulua. Zuzendaritza-organoak.

1. Erakunde- eta enpresa-katedretako jardueren zuzendaritzaz Jarraipen Batzorde Mistoa eta katedraren zuzendaria arduratuko dira.
2. Jarraipen Batzorde Mistoa parekidea izanen da, hau da, kideen erdiak Nafarroako Unibertsitate Publikokoak izanen dira, eta beste erdiak enpresa edo erakundekoak. Oro har, lau lagunek osatuko dute zuzendaritza, baina zilegi izanen da kide gehiago sartzea egoerak hala eskatzen badu.
3. Errektoreak izendatuko ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ordezkariak, Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasleen artetik edo kontratupeko bitarteko irakasle doktoreen artetik. Izendapenaren ebazpenean zehaztuko da zenbat iraunen duen agintaldiak. Ezin izanen da zuzendari izendatu enpresa edo erakundearekin nolabaiteko lotura duen inor. (GKE 2021/03/30)
4. Errektoreak izendatuko du erakunde- edo enpresa-katedraren zuzendaria, Jarraipen Batzorde Mistoak proposatuta. Erakunde- eta enpresa-katedraren zuzendaria Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikerlarietako bat izanen da, Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duena, edo kontratupeko bitarteko irakasle doktore bat, lanaldi osokoa, baldin eta irakasle edo ikertzaile lanak katedraren jarduera esparruarekin zerikusia badu. (GKE 2021/03/30)

7. artikulua. Batzorde Mistoaren funtzionamendua. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

1. Jarraipen Batzorde Mistoak, lehenbiziko bileran, batzordeburua eta idazkaria hautatuko ditu bere kideen artetik, eta azken hori arduratuko da bileren akta

reuniones. El presidente tendrá voto dirimiente.

2. La Comisión Mixta de Seguimiento de la Cátedra celebrará, al menos, dos reuniones al año, pudiendo realizar otras reuniones a iniciativa de su Presidente o a solicitud a éste de la mitad más uno de sus miembros. La convocatoria de las reuniones corresponderá, en todo caso, a su Presidente.
   La Comisión Mixta de Seguimiento, una vez constituida, en su primera reunion, deberá acordar la propuesta del Director o de la Directora de la Cátedra institucional o de empresa y elevarla al Rector o a la Rectora, de acuerdo con lo establecido en el Artículo 6.4. (ACG 30/03/2021)
   Asimismo, tras el cese del Director o de la Directora por cualquier causa, el Presidente o la Presidenta de la Comisión o quién le sustituya, deberá convocar la primera reunion de esta Comisión en el plazo máximo de dos meses, en la que de confirmidad con lo dispuesto en el artículo 6.4., deberá aprobar la propuesta de nombramiento del Nuevo Director o nueva Directora de la Cátedra institucional o de empresa. (ACG 30/03/2021)
3. Para la válida constitución de la Comisión Mixta de Seguimiento deberán estar presentes tres cuartas partes de sus miembros; en todo caso, su Presidente y su Secretario.
4. La Comisión Mixta de Seguimiento aprobará, con carácter anual, el programa de actividades de la Cátedra, y la distribución del presupuesto para cada una de las acciones a llevar a cabo.

egiteaz. Lehendakariak boto erabakitzailea izanen du.

2. Katedraren Jarraipen Batzorde Mistoak urtean bi bilera eginen ditu gutxienez, eta beste bilera batzuk ere egiten ahalko ditu lehendakariaren ekimenez edo kideen erdiak gehi batek eskatuta. Bileren deialdia lehendakariak eginen du beti.
   Jarraipen Batzorde Mistoak, eratu ondorengo lehenbiziko bileran, erakunde- edo enpresa-katedrako zuzendari nor proposatu adostu beharko du, eta errektoreari helarazi 6.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. (GKE 2021/03/30)
   Era berean, edozein arrazoirengatik zuzendaria kargutik kendu eta gero Batzordeko buruak edo haren ordezkoak Batzordearen lehenbiziko bilerarako deia egin beharko du beranduenez bi hilabeteko epean. Bilera horretan, 6.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, erakunde- eta enpresa-katedrako zuzendari berria izendatzeko proposamena onartu beharko du. (GKE 2021/03/30)
3. Jarraipen Batzorde Mistoaren eraketa baliozkotzeko, batzordekideen hiru laurden egon behar dira bileran; batzordeburua eta idazkaria, berriz, nahitaez.
4. Urtean behin, katedraren jarduera-programa onetsiko du Jarraipen Batzorde Mistoak, bai eta egin beharreko ekintza bakoitzerako aurrekontuaren banaketa ere.

Artículo 8. Funciones de los Órganos de Dirección Numeración corregida (30/03/2021)

Las funciones de la Comisión Mixta de Seguimiento serán las siguientes:

a) Proponer al Rector de la Universidad Pública de Navarra el nombramiento, o destitución, del Director o Directora de la Cátedra.
b) Aprobar el presupuesto de la Cátedra, junto con el programa anual de actividades
c) Informar al Vicerrectorado competente del programa anual de actividades de la Cátedra con su correspondiente presupuesto.
d) Supervisar la ejecución del programa anual de actividades.

8. artikulua. Zuzendaritza-organoen eginkizunak. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

Jarraipen Batzorde Mistoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari proposamena egitea katedraren zuzendaria izendatzeko edo kargugabetzeko.
b) Katedraren aurrekontua onartzea urteko jarduera programarekin batera.
c) Errektoreordetza eskudunari katedraren urteko jarduera programa eta haren aurrekontua ezagutaraztea.
d) Urteko jarduera programaren betetzen dela gainbegiratzea.

e) Aprobar, al final de cada ejercicio, la memoria anual de actividades de la Cátedra, así como una propuesta de actuación, y dar traslado de los mismos al Vicerrectorado competente

f) Proponer la aprobación de los posibles convenios de colaboración de la Cátedra con otras entidades, que favorezcan la consecución de sus objetivos estratégicos.

g) Resolver las posibles controversias respecto a la interpretación, modificación, resolución y efectos del convenio por el que se crea la Cátedra.

e) Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, katedraren urteko jarduerei buruzko memoria eta jarduteko proposamen bat onestea eta errektoreordetza eskudunari helaraztea.

f) Katedrak beste entitate batzuekin eginen dituen lankidetza-hitzarmenak onets daitezen proposatzea helburu estrategikoak erdieste aldera.

g) Katedra eratzeko hitzarmenaren interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondorioei buruzko eztabaidak ebaztea, halakorik badago.

Artículo 9. Retribuciones. Numeración corregida (30/03/2021)

1. El Director o Directora de la Cátedra podrá percibir un complemento económico específico por su dedicación a la Cátedra. Los miembros de la Comisión de seguimiento no podrán ser remunerados en función del ejercicio de su cargo.
2. La Comisión Mixta podrá proponer al Rector la asignación del complemento específico al Director o Directora de la Cátedra recogido en el punto anterior.
3. En todo caso los complementos retributivos de los Directores de Cátedra se alinearán a los recibidos por los cargos académicos unipersonales de acuerdo con el siguiente baremo:

- Cátedras con una asignación anual comprendida entre 20.000€ y 30.000€: el complemento retributivo será el equivalente al de secretario de de Centro.
- Cátedras con una asignación anual comprendida entre 30.001€ y 50.000€: el complemento retributivo será el equivalente al de director de Departamento.
- Cátedras con una asignación anual superior a 50.000€: el complemento retributivo será el equivalente al de director de Centro.

9. artikulua. Lansariak. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

1. Katedraren zuzendariak zilegi du osagarri ekonomiko espezifiko bat jasotzea katedran aritzeagatik. Jarraipen Batzorde Mistoko kideek ezin dute ordainsaririk jaso kargua betetzeagatik.
2. Jarraipen Batzorde Mistoak zilegi du errektoreari proposamena egitea katedraren zuzendariari osagarri espezifikoa esleitzeko (aurreko puntuan dago jasoa).
3. Nolanahi ere, katedraren zuzendarien ordainsari-osagarriak pertsona bakarreko kargu akademikoek jasotakoaren parekoak izanen dira, baremo honen arabera:

- Katedraren urteko diru esleipena 20.000 € eta 30.000 € bitartekoa bada, ikastegiko idazkariaren ordainsari-osagarriaren baliokidea izanen da.
- Katedraren urteko diru esleipena 30.001 € eta 50.000 € artekoa bada, berriz, saileko zuzendariarenaren baliokidea.
- Urteko diru esleipena 50.000 €-tik gorakoa bada, ikastegiko zuzendariaren parekoa izanen da osagarria.

Artículo 10. Funciones del Director. Numeración corregida (30/03/2021)

1. El Director de la Cátedra gestionará y dirigirá las actividades de la Cátedra bajo las directrices de la Comisión Mixta de Seguimiento.

10. artikulua. Zuzendariaren eginkizunak. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

1. Katedran antolatutako jarduerak kudeatu eta gidatuko ditu zuzendariak Jarraipen Batzorde Mistoaren gidaritzapean.

2. El Director de la Cátedra realizará los planes de generación y aplicación de recursos, que deberán ser aprobados por la Comisión Mixta cada año, y desarrollará todas las funciones que le sean encomendadas por ésta.

2. Baliabideak sortzeko eta aplikatzeko planak ere eginen ditu, eta Batzorde Mistoak onetsi beharko ditu urtero. Gainera, Batzorde Mistoak agintzen dizkion eginkizun guztiak beteko ditu.

Artículo 11. Difusión de las actividades. Numeración corregida (30/03/2021)

1. La Universidad Pública de Navarra hará constar la colaboración de la empresa o entidad patrocinadora en todas las actividades que lleve a cabo la Cátedra.
2. Con ese fin todas las Cátedras institucionales y de empresa dispondrán de una página web a la que podrá accederse desde la del Universidad Pública de Navarra. En esa página de la Cátedra se incluirán los datos esenciales respecto a la finalidad, actividades y órganos responsables de la Cátedra, así como las memorias anuales de la misma.

11. artikulua. Jarduerak ezagutzera ematea. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

1. Jardueren babesle izan diren enpresa eta entitateek laguntza eman dutela emanen du ezagutzera Nafarroako Unibertsitate Publikoak katedraren jarduera guztietan.
2. Horretarako, web-orri bat izanen dute erakunde- eta enpresa-katedrek, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean sarbidea egonen da hara. Katedraren web-orrian, katedraren helburuari, jarduerei eta organo arduradunei buruzko funtsezko datuak jasoko dira, baita katedraren urteko memoriak ere.

Artículo 12. Gestión económica. Numeración corregida (30/03/2021)

1. La gestión económica de las Cátedras se realizará a través de los servicios administrativos de la Universidad Pública de Navarra estará integrada en su presupuesto y se regirá por sus normas económicas.
2. La retribución de las actividades realizadas en el marco de la Cátedra se regirá por la normativa que al respecto existe en el Universidad Pública de Navarra.
3. El material inventariable adquirido mediante la financiación específica de las Cátedras será patrimonio de la Universidad Pública de Navarra y, como tal, se registrará en su Inventario de Bienes Muebles.

12. artikulua. Kudeaketa ekonomikoa. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

1. Katedren kudeaketa ekonomikoa Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazio zerbitzuek eginen dute, Unibertsitatearen aurrekontuan integratua egonen da, eta haren arau ekonomikoek arautuko dute.
2. Katedraren esparruan egindako jardueren ordainsaria Nafarroako Unibertsitate Publikoan horri buruz dagoen araudiaren araberakoa izanen da.
3. Katedren finantzaketa espezifikoaren bidez eskuratutako material inbentariagarria Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondarea izanen da, eta, beraz, Ondasun Higigarrien Inbentarioan erregistratuko da.

Artículo 13. Contratación de personal. Numeración corregida (30/03/2021)

La contratación de personal con cargo a las Cátedras institucionales y de empresa será efectuada por procedimientos análogos a los de las contrataciones llevadas a cabo en el Universidad Pública de Navarra, utilizando la figura acorde al puesto de trabajo de que se trate.

13. artikulua. Langileen kontratazioa. Zenbakia zuzendua (2021/03/30)

Erakunde- eta enpresa-katedren kargurako langileen kontratazioa Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten diren kontratazioen antzeko prozeduren bidez eginen da, eta lanpostuaren ezaugarrien araberako figura erabiliko da horretarako.

Disposición Adicional Única. Queda Suprimida (ACG 30/03/2021)
Esta normativa será de aplicación a las Cátedras existentes actualmente en la UPNa en aquellas cuestiones no previstas en los respectivos convenios de creación, y siempre que no resulten contrarias a las prescripciones en ellos contenidas.

Xedapen gehigarri bakarra. Kendu egin da (GKE 2021/03/30)
NUPen gaur egun dauden katedrei aplikatuko zaie araudi hau katedra eratzeko hitzarmenetan ezarriak ez dauden gaietan, betiere hitzarmenetan jasotako aginduen kontrakoak ez badira.

Disposición Adicional Primera. (ACG 30/03/2021)

De forma excepcional, la Comisión Mixta de Seguimiento podrá considerar, para cumplir con los objetivos de la Cátedra, la necesidad de que se establezcan con la empresa o institución externa formas de colaboración que supongan intercambio y contraprestación de bienes y servicios. La realización de estas actividades estará sujeta a la presentación de una propuesta formal por parte de la Empresa o Institución que sustente la Cáteda, y a su aprobación por la Comisión Mixta de Seguimiento y el Vicerrectorado competente, del que depende funcionalmente la Cátedra.

Las mencionadas colaboraciones se formalizarán de conformidad con las normas y procedimientos de la OTRI regulados por el Reglamento de contratos de carácter científico, técnico o artístico para el desarrollo de enseñanzas de especialización o actividades específicas de formación de la Universidad.

En las certificaciones que la Universidad Pública de Navarra emita a favor de las empresas o instituciones externas sobre las dotaciones económicas anuales que aportan a las Cátedras, se consignarán de manera diferenciada los importes de los contratos de trabajo científicos, técnicos o artísticos.

En ningún caso, los importes destinados a las actividades de la Cátedra que supongan intercambio y contraprestación de bienes y servicios podrán ser certificados por la Universidad como contribución a la Cátedra, pero sí podrán computar a los efectos de la contribución mínima para el mantenimiento de una Cátedra institucional o de empresa establecida en el artículo 3.2. de la presente normativa.

Lehenbiziko xedapen gehigarria. (GKE 2021/03/30)

Salbuespen gisa, Jarraipen Batzorde Mistoak kontuan hartzen ahalko du, katedraren helburuak betetzeko, beharrezkoa dela kanpoko enpresa edo erakundearekin ondasunak eta zerbitzuak trukatzea dakarten lankidetza-moduak ezartzea. Jarduera horiek egin ahal izateko, katedraren euskarri den enpresak edo erakundeak proposamen formala aurkeztu beharko du, eta Jarraipen Batzorde Mistoak eta errektoreordetza eskudunak onetsi beharko du (katedra funtzionalki bere mende duenak).

Lankidetza horiek OTRIren arau eta prozeduren arabera formalizatuko dira, zeinak Unibertsitatearen Unibertsitatearen espezializazio ikasketak edo prestakuntza jarduera berariazkoak garatzeko izaera zientifiko, tekniko edo artistikoa duten lanetarako Kontratazio Arautegiak arautzen baititu.

Kanpoko enpresa edo erakundeek katedrei urtean emandako diru-zuzkidurari buruz entitate horien alde Nafarroako Unibertsitate Publikoak emadako ziurtagirietan, bereiz adieraziko dira lan zientifiko, tekniko edo artistikoen kontratuen zenbatekoak.

Unibertsitateak ezin izanen ditu inondik inora katedrari egindako ekarpentzat ziurtatu katedraren jardueretarako ondasun eta zerbitzuen trukea eta kontraprestazioa dakarten jardueretarako zenbatekoak , baina zilegi izanen da kontuan hartzea erakunde-edo enpresa-katedra bat mantentzeko gutxieneko ekarpenerako (araudi honen 3.2 artikuluan dago hori ezarria).

Disposición Adicional Segunda. (ACG 30/03/2021)

Esta normativa será de aplicación a las Cátedras existentes actualmente en la UPNA en aquellas cuestiones no previstas en los respectivos convenios de creación, y siempre que no resulten contrarias a las prescripciones en ellos contenidas.

Bigarren xedapen gehigarria. (GKE 2021/03/30)

NUPen gaur egun dauden katedrei aplikatuko zaie araudi hau katedra eratzeko hitzarmenetan ezarriak ez dauden gaietan, betiere hitzarmenetan jasotako aginduen kontrakoak ez badira.

Este documento es de carácter informativo y no tiene valor jurídico.
Dokumentu hau informazioa emateko da, eta ez du balio juridikorik.